



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko maiatzaren 30ean

58 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako plan bereziari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Frantzisko ikastetxe publikoa “Teresatarrak/Ezpeletako kontearen jauregia” eraikinera eramateko tramiteak geldiaraz ditzan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak San Frantzisko ikastetxe publikoa Ezpeleta edo Teresatarren eraikinera eramateko proiektua geldiarazteko exijitzen du. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Frantzisko ikastetxe publikoa Teresatarren eraikinera eramateko proiektua geldiarazi eta Teresatarren eraikina horretarako egokitzeari buruzko txostena egin dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Frantzisko ikastetxe publikoa Teresatarren eraikinera eramateko proiektua geldiaraz dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ezpeleta jauregia ikastetxe bihurtzeko obrei hasiera emateko tramiteak geldiaraz ditzan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak bazter utzia (7. or.).

—Erabakia, José Vila ikastetxe publikoa ixteari eta ikastetxe publikoak suspertzeko plan bat egiteari buruzkoa. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Mendillorri IV ikastetxe publikoan haur hezkuntzako lehen mailako beste gela bat ireki dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorriko hezkuntza premiak zehazteko azterlan bat egin dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (8. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorriko hezkuntza premiei buruzko programa orokorra egin dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorriin bigarren hezkuntzako ikastetxe bat eraiki dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (9. or.).
- Ebazpena, Nazio Batuen Erakundeak eta Afrikar Batasunerako Erakundeak Mendebaldeko Sahararako bultzaturiko irtenbide plana aplikatzeari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Ebazpena, “Premio Príncipe de Asturias de la Concordia 2001” sarirako emakume sahararren hautagaitzari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Ebazpena, Melitón Manzanasi Meritu Zibilaren domina ematearen aurkako jarrerari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia. Gaindituen zerrenda (12. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (12. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako plan bereziari buruzkoa**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako plan bereziari buruzko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2001eko martxoaren 26ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **1. ZUZENKETA**

#### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluari bigarren lerrokada gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. artikulua

B. Era berean, toki azpiegituren 2001-2003rako hiru urteko planean hornidura eta saneamendu sareak berritzeko aportazioak bai baina horiei loturiko zoladuretarakoak emanik ez dituzten herrietan zoladura emateko lanak ere kontuan hartuko dira.”

Zioak: Toki azpiegituren 2001-2003 plana betetzean disfuntzio bat gertatu da, eta kaltea eragin dio sareak berritzeko bai baina zoladuretarako aportaziorik emanik ez duten herriei. Hori dela eta, beharturik egonen dira sareak berritzeari uko egitera edo Nafarroako Gobernuaren aportaziorik gabe egitera. Zuzenketa honen bitartez egoera honi konponbidea eman nahi zaio, gai honek ondorio ekonomikoak baititu arazoa bideraturik ez duten herrietan.

### **2. ZUZENKETA**

#### **NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua testu honekin ordeztuko zuzenketa:

“Eremu deprimituetarako aportazioak, 1. eranskinaren arabera:

2001. urtea: 350 milioi pezeta.

2002. urtea: 350 milioi pezeta.

2003. urtea: 350 milioi pezeta.

Toki azpiegituren 2001-2003rako hiru urteko planean sareak berritzeko aportazioak jaso dituzten baina zoladura lanetarakoak bermaturik ez dituzten herrietan zoladurak egiteko aportazioak.

2002. urtea: 750 milioi pezeta.

2003. urtea: 750 milioi pezeta.

Toki azpiegituren 2001-2003rako plan bereziaren urteko aportazioak, guztira:

2001. urtea: 350 milioi pezeta.

2002. urtea: 1.100 milioi pezeta.

2003. urtea: 1.100 milioi pezeta.

Toki azpiegituren 2001-2003rako plan berezia, guztira:

2.550 milioi pezeta.”

Zioak: Aurreko zuzenketetan azaldutako arazoaren kostua aipatzea beharrezkoa da. Gehituta-ko aportazioekin aiseago bideratuko da zenbait herrietan egoera horrek eragin duen arazoa.

**3. ZUZENKETA****JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI  
FERNÁNDEZ DE BARRENA**

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Lege proiektu horren eranskinari gehikuntza egiteko zuzenketa.

Lege proiektuaren eranskinean agei diren entitateei honako hauek gehitzea:

“Arakil  
Arruazu  
Ziordia  
Irañeta  
Iturmendi  
Uharte-Arakil  
Urdiain  
Araitz  
Basaburua  
Imotz  
Larraun  
Ultzama  
Arantza  
Bertizarana  
Ituren  
Sunbilla  
Igantzi  
Baztan  
Urdazubi

Elo  
Urraulbeiti  
Oibar  
Barasoain  
Garinoain  
Ledea  
Puiu  
Zangozako Zare  
Anue  
Atetz  
Ziritza  
Lantz  
Odieta  
Olo  
Bidaurreta”

Zioak: Zuzenketa honetan ageri diren herrietan populazio ratioetako aldaketek, edo zahartze tasak, edo biek, erreferentziakoak baino balio ahulagoak dituzte. Hau da, populazioaren galera Nafarroako batez bestekoa baino handiagoa da, edo zahartze tasa erkidegoko batez besteko tasa baino altuagoa da.

Halaber, herri hauetako gehienek enplegu maila altu samarrak dituzte lehen sektorean eta, gaur egun ere, sektore ekonomiko horrek eremu hauetako garapen sozio-ekonomikorako.

Jakina denez, lehen sektorean behi azizendaren gaitzaren ondorioak pairatzen ari dira, eta egoera honek eragin zuzena du eremu hauetako egonkortasunean, eta beharrezkoa da denbora epe horretan aintzat hartzea.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Frantzisko ikastetxe publikoa “Teresatarrak/Ezpeletako kontearen jauregia” eraikinera eramateko tramiteak geldiaraz ditzan**

*HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 18an eginitako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Frantzisko ikastetxe publikoa “Teresatarrak/Ezpeletako kontearen jauregia” eraikinera eramateko tramiteak geldiaraz ditzan”.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Frantzisko ikastetxe publikoa “Teresatarrak/Ezpeletako kontearen jauregia” eraikinera eramateko tramiteak geldiaraz ditzan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du San Frantzisko ikastetxea “Teresatarrak-Ezpeleta jauregia” eraikinean jartzeko tramiteak eten ditzan, Nafarroan aholku emateko organo gorena den Nafarroako Kontseiluak Parlamentuak eskaturiko txostena egin arte.

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak San Frantzisko ikastetxe publikoa Ezpeleta edo Teresatarren eraikinera eramateko proiektua geldiarazteko exijitzen du**

*HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 18an eginitako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak San Frantzisko ikastetxe publikoa Ezpeleta edo Teresatarren eraikinera eramateko proiektua geldiarazteko exijitzen du”.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak San Frantzisko ikastetxe publikoa Ezpeleta edo Teresatarren eraikinera eramateko proiektua geldiarazteko exijitzen du**

Nafarroako Parlamentuak Iruñeko Alde Zaharreko San Frantzisko ikastetxek kale Nagusian dagoen Ezpeleta eraikinera eramateko proiektua geldiaraztea eskatzen du.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Frantzisko ikastetxe publikoa Teresatarren eraikinera eramateko proiektua geldiarazi eta Teresatarren eraikina horretarako egokitzeari buruzko txostena egin dezan**

### *HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 18an egini-ko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Frantzisko ikastetxe publikoa Teresatarren eraikinera eramateko proiektua geldiarazi eta Teresatarren eraikina horretarako egokitzeari buruzko txostena egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Frantzisko ikastetxe publikoa Teresatarren eraikinera eramateko proiektua geldiarazi eta Teresatarren eraikina horretarako egokitzeari buruzko txostena egin dezan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Teresatarren-Ezpeleta

Kontearen Jauregia egokitzeari buruzko txosten bat igor dezan Biltzar honetara hilabeteko epean gehienez ere. Txostenak ondokoak jorratuko ditu:

a.- Araubide orokorreko ikasketa ez unibertsitarioak ematen diren ikastetxeen gutxieneko betebeharrak ezartzen dituen ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretua betetzen ote den.

b.- Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeak eraikitzekeo proiektuak idazteko beharizanen programak onesten dituen Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren 1991ko azaroaren 4ko Agindua (1991ko azaroaren 12ko BOE) betetzen ote den.

c.- Eraikinak suteen kontra babesteko baldintzei buruzko Estatuko arauak (NBE-CPI/96) betetzen ote diren, batez ere ondokoak direla-eta: hustutzeko ibilbideak, eraikinaren okupazioa, eskailera eta korridoreen neurriak eta egitura-osagaiak sutearen aurrean duten egonkortasuna.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala geraraz dezan San Frantzisko ikastetxe publikoa Teresatarren-Ezpeleta Kontearen Jauregian kokatzeko proiektua, harik eta Nafarroako Kontseiluari eskatutako txostena eta arestiko puntuan zehaztutako araudia betetzeari buruzkoa jaso arte.

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Frantzisko ikastetxe publikoa Teresatarren eraikinera eramateko proiektua geldiaraz dezan**

### *HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Frantzisko ikastetxe publikoa Teresatarren eraikinera eramateko proiektua geldiaraz dezan".

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 18an egini-

ko bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko maiatzaren 22ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ezpeleta jauregia ikastetxe bihurtzeko obrei hasiera emateko tramiteak geldiaraz ditzan**

### *HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ezpeleta jauregia ikastetxe bihurtzeko obrei hasiera emateko tramiteak geldiaraz ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 18an egini-

ko bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko maiatzaren 22ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Erabakia, José Vila ikastetxe publikoa ixteari eta ikastetxe publikoak suspertzeko plan bat egiteari buruzkoa**

### *HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 22an egini-ko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia, José Vila ikastetxe publikoa ixteari eta ikastetxe publikoak suspertzeko plan bat egiteari buruzkoa".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Erabakia, José Vila ikastetxe publikoa ixteari eta ikastetxe publikoak suspertzeko plan bat egiteari buruzkoa**

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du José Vilá ikastetxe publikoa ixteari uko egin diezaion, alde horretan eskainiko diren ordezkari aukera urriak kontuan izanik.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, hiru hilabeteko epean, ikastetxe publikoa babesteko plan bat presta dezan, hezkuntza-eskaintzaren kalitatean oinarrituz eta Nafarroako beste ikastetxe publiko batzuetan abiarazi diren esperientzia berritzaileen ondorioz gurasoek egindako eskaerak kontuan hartuz.

## **Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premia-tzen da Mendillorri IV ikastetxe publikoan haur hezkuntzako lehen mailako beste gela bat ireki dezan**

### *HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 22an egini-ko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Eraba-  
kia. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura  
Departamentua premia-tzen da Mendillorri IV ikas-  
tetxe publikoan haur hezkuntzako lehen mailako  
beste gela bat ireki dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan  
ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako  
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin  
agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premia-tzen da Mendillorri IV ikastetxe publikoan haur hezkuntzako lehen mailako beste gela bat ireki dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-  
nuko Hezkuntza Departamentua premia-tzen du  
Mendillorri IV ikastetxean datorren ikasturtean  
(2001-2002) ikasgela bat gehiago ireki dezan haur  
hezkuntzako 1. mailan.

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Mendillo- rriko hezkuntza premiak zehazteko azterlan bat egin dezan**

### *HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kul-  
tura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 22an egini-  
ko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Eraba-  
kia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua  
premia-tzen da Mendillorriko hezkuntza premiak  
zehazteko azterlan bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan  
ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako  
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin  
agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Mendillo- rriko hezkuntza premiak zehazteko azterlan bat egin dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-  
nua premia-tzen du 2001/2002 ikasturtean Mendi-  
llorriko biztanleriari buruzko azterlan bat egin  
dezan, derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondo-  
ko hezkuntzaren premien gaineko programa  
zehaztearren Mendillorriko haur eta lehen hezkun-  
tzako I, II, III eta IV. ikastetxe publikoetako gura-  
soen elkarrekin batera.

Horren ondorioz, 2002ko ekitaldiko aurrekontu  
orokorretan kontusail bat sor dezan Mendillorriko  
bigarren hezkuntzako ikastetxea eraikitzeko  
proiektua egiteko, 2003/2004 ikasturtean derrigo-  
rrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloa haster-  
ren.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorriko hezkuntza premiei buruzko programa orokorra egin dezan**

### *HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 22an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorriko hezkuntza premiei buruzko programa orokorra egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorriko hezkuntza premiei buruzko programa orokorra egin dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2001 urtea bukatu baino lehen egin dezan bigarren hezkuntzako premiei buruzko programa orokorra –eta, ondorioz, Mendillorri egin beharrekoen programa ere– eta gurasoen ordezkari euren iritzia eska diezaien, haiek aztertuko baitute haren edukia eta betetzen ote den. Premiei buruzko programa orokorrak ondoak bilduko ditu, besteak beste:

a.- Mendillorriko bigarren hezkuntza osoari –DBH, batxilergoa eta lanbide heziketa– buruzko premien programazio orokorra, Mendillorri hezkuntza eskaintza osoa izan dadin.

b.- 2003/2004 ikasturtean hasiko da derrigorezko bigarren hezkuntza Mendillorri, etorkizuneko premiei aurre egiteko onetsitako jarduketan programa batek dakarren bermearekin.

c.- Egin beharrekoen programan batxilergoak jarriko direla jasoko da, bai eta egoki irizitako zikloak ere, ikasle kopuruak hala egitea eskatzen badu.

d.- Programa bakar batean bilduko dira premia eta egin beharreko guztiak, eta arian-arian eginen dira, baina luzatu gabe eta zalantzak aldiro sortu gabe.

e.- Gurasoen elkarteei auzoko hezkuntzari buruzko proiektu, azterlan eta abarren berri emanen zaie une oro, gurasoen parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du haur hezkuntzako gela bat gehiago ireki dezan Mendillorri IV ikastetxean, bertan une honetan tokirik ez duten 10 ikasle horiek eskolatzeko, ikastetxe horretako zein Mendillorriko gainontzeko ikastetxeetako hezkuntza erkidegoak eskatutakoari jarraiki.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorriko bigarren hezkuntzako ikastetxe bat eraiki dezan**

### *HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 22an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorriko bigarren hezkuntzako ikastetxe bat eraiki dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorriko bigarren hezkuntzako ikastetxe bat eraiki dezan**

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea bigarren hezkuntzako ikastetxe bat eraiki dezan Mendillorri, derrigorezko bigarren hezkuntzari eta derrigorrezko mailen ondokoei dagokienez Iruñeko auzo horretan hurrengo urteetan izanen den eskariari erantzuteko.

## **Ebazpena, Nazio Batuen Erakundeak eta Afrikar Batasunerako Erakundeak Mendebaldeko Sahararako bultzaturiko irtenbide plana aplikatzeari buruzkoa**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2001eko maiatzaren 21ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehena.-** Nazio Batuen Erakundeak eta Afrikar Batasunerako Erakundeak Mendebaldeko Sahararako bultzaturiko Irtenbide Plana aplikatzeari buruzko Ebazpena onestea. Aipaturiko ebazpen hori Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Bereziak helarazi du, 2001eko maiatzaren 11n harturiko erabakiaren bidez. Honako testu hau dauka:

“1.- Nafarroako Parlamentuak exijitzen du Nazio Batuen Erakundeak eta Afrikar Batasunerako Erakundeak Mendebaldeko Sahararako bultzaturiko irtenbide plana zorrozki aplikatu dadila, eta horrek xedatzen duen erreferenduma berehala egin dadila.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nazio Batuei eskatzen die nazioarteko zuzenbidea errespetatu dadila, Mendebaldeko Sahararako irtenbide plana eta Houstongo Akordioak aplikatuz, eta Saharako herriaren autodeterminaziorako erreferenduma egitea berehala erabaki dadila.

3.- Nafarroako Parlamentuak Europar Batasuna eta estatu kideak premiatzen ditu Mendebaldeko Sahararako bake plana berehala aplikatzearen alde tinko esku har dezaten.

4.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Saharako herriarekiko zor historikoa bere gain har dezan eta, Saharako herriak dituen eskubide zilegiak defendatzeko xedez –eskubide horiek nazioartean aitorturik daude– zuzeneko ekintza politikoak eginez, oraindik amaitzeke dagoen deskolonizazio-prozesua burutzeko sustapen-lanak egin ditzan, eta, orobat, nazioko nahiz nazioarteko esparruetan tinkotasunez defenda ditzan NBE/ABEren bake plana eta Houstongo Akordioak, zeinek xedatzen baitute Saharako herriak bere etorkizuna askatasunez erabaki ahal izateko erreferendum libre eta gardena bat egin behar dela. Halaber, aipaturikoak urratzeko edo alboratzeko ekimen ororen aurka jarrera irmoa ager dezan.

5.- Ebazpen hau Nazio Batuen, Europar Batasunaren, Espainiako Gobernuaren eta Sahararako Espainian daukaten Ordezkaritzaren arduradun nagusiei igortzea.”

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Ebazpena, “Premio Príncipe de Asturias de la Concordia 2001” sarirako emakume sahararren hautagaitzari buruzkoa**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2001eko maiatzaren 21ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehena.-** “Premio Príncipe de Asturias de la Concordia 2001” sarirako emakume sahararren hautagaitzari buruzko ebazpena onestea. Aipaturiko ebazpen hori Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Bereziak helarazi du, 2001eko maiatzaren 11n harturiko erabakiaren bidez. Hona hemen haren testua:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bat egiten du “Premio Príncipe de Asturias de la Concordia

2001” sarirako emakume sahararrak aurkezteko proposamenarekin, horretarako eraturiko Batzorde Sustatzaileak proposaturiko moduan.

2.- Ebazpen hau “Premio Príncipe de Asturias de la Concordia 2001” sariko Batzorde Sustatzaileko Koordinakundeari eta epaimahaiari igortzea”.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 22an.

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Ebazpena, Melitón Manzanasi Meritu Zibilaren domina ematearen aurkako jarrerari buruzkoa**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2001eko maiatzaren 21ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehena.-** Melitón Manzanasi Meritu Zibilaren domina ematearen aurkako jarrerari buruzko Ebazpena onestea. Aipaturiko ebazpen hori Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Bereziak helarazi du, 2001eko maiatzaren 11n harturiko erabakiaren bidez. Hona hemen haren testua:

“1.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du Meritu Zibilaren domina Melitón Manzanasi ema-

teko Espainiako Gobernuak harturiko erabakiaren aurka dagoela.

2.- Nafarroako Parlamentuak erabaki du Espainiako Gobernuari berariazko eskaera formal egitea aipaturiko erabakia deusezta dezan.

3.- Iritzi publikoari erabaki horien berri ematea”.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués.

---

**G Saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdia**

### **Gaindituen zerrenda**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako deialdiko epaimahai kalifikatzaileak jakinarazitako gaindituen zerrenda (2001eko otsailaren 9ko 11. NPAO), ERABAKI DUGU:

1. Gaindituen zerrenda, puntuazioaren arabera sailkatuta, jakitun dagoela adieraztea.

Doménech Alegre, Silvia .....	50,50 puntu.
Laurenz Itoiz, Miguel Ángel .....	44,90 puntu.
Lamadrid Morón, Estrella.....	44,70 puntu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa**

### **Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda**

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena– lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzeko deialdirako eskabideak aurkezteko epea bukatuta, deialdiko 4. oinarriak xedatutakoarekin bat (deialdia 2001eko apirilaren 27ko 45. NPAOn eta 2001eko maiatzaren 11ko 58. NAOOn argitaratu zen), ERABAKI DUGU:

1. Hurrengo onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea.

### **Onartuak:**

Sesma Veá, María Antonia  
Echeverría Uhalte, Celina  
Jaurrieta Elcano, Teodoro

### **Bazertuak:**

Inor ez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués